


Euskadiko bizitegi-bazterketari buruzko III. Jardunaldiak

2017ko azaroaren 2a
Europa Biltzar Jauregia
VITORIA-GASTEIZ





Aurkezpena

2012. urtetik, EAEko instituzio eta eragile sozialak lan handia egiten ari dira bizitegi-bazterketaren arloan. Alde batetik, urte hartatik aurrera burutu dira bizitegi-bazterketan dauden pertsonak aurkitzeko hiru gaueko zenbaketa —2012, 2014 eta 2016—, eta azkeneko zenbaketan partaide izan ziren Euskadin biztanleriarik gehien batzen dituzten 24 udalerrri. Halaber, aurrerabidea egin da Bizitegi-bazterketa Larriko Egoerak Prebenitu eta Gutxitzeko Euskal Estrategian, sinatu egin da instituzioen arteko lankidetzarako protokolo bat fenomeno hau ikertu, jarraipena egin eta analizatzeko, eta aurretik burutu dira Euskadiko bizitegi-bazterketaren inguruko bi jardunaldi (2014ko martxoan, Donostian, eta 2015eko urrian, Bilbon).

Euskadiko Bizitegi-bazterketaren inguruko III. Jardunaldi hauen bitartez, jarraipena eta ikusgaitasuna eskaini nahi zaio instituzioen arteko lankidetzari honi guztiari. Jardunaldia burutuko da azaroak 2an, osteguna, Gasteizko Europa Biltzar Jauregian, eta aurreko bi jardunaldietan bezala, sustatzaile eta antolatzailea dira bai Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila bai hiru euskal hiriburuetakoko udaletxeak.

Hirugarren jardunaldi hauetako helburua hirukoitza da:

- Ezagutzera eman nahi da joandako urriaren 26an 1.000 boluntarioen laguntzaz buruturiko bizitegi-bazterketa egoeran bizi diren biztanleen hirugarren zenbaketa.
- Berariaz aztertu nahi da bizitegi-bazterketa larria pairatzen duten emakumeen errealitatea eta arretarako baliabide desberdinetatik eskaintzen zaien arreta.
- Bizitegi-bazterketa Larriko Egoerak Prebenitu eta Gutxitzeko Euskal Estrategiaren aurkezpena egitea eta baita ere gure inguruko autonomia-erkidegoetan burutu diren tankerako estrategiei kontu hartzea.

Aurreko horietaz gain, jardunaldi honetan garrantzia berezia eskainiko zaio etxegabeko pertsonen eskuartzetarako prestakuntza, gogoeta eta tresnen inguruko eztabaidari. Horretarako antolatu dira aldi bereko bost lantegi, eta bertako partaide izateko aukera izango dute 40 lagunek, etxegabeko biztanleen arloko eskuartzeen inguruan oso harreman estua duten bost gairen inguruan. Lantegiko plazen kopurua mugatua denez, izena ematen den heinean eskuragarri izango dira bertako plaza horiek.

Izen-ematea

- Izenematea egin daiteke <http://mintegia.siiis.net> webgunearen bidez edo 943 423 656 telefonora deituz (Ane Izagirre).



PROGRAMA

9:30-10:00 Aurkezpena

BEATRIZ ARTOLAZABAL. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburua.
Eusko Jaurlaritza

GORKA URTARAN. Alkatea. Gasteizko Udaletxea

10:00-10:45 Bizitegi-bazterketa larria Euskadin: egungo egoera eta eboluzioa

RAQUEL SANZ. SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa

10:45-11:30 Bizitegi-bazterketa genero-ikuspegitik. EBko joera nagusiak

ISABEL BAPTISTA. Centro de Estudos para a
Intervenção Social, Portugal

11:30-12:00 Atsedenaldia

12:00-14:00 Mahaingurua. Etxegabeko biztanleen arretarako Erkidegoetako Estrategiak

**Bizitegi-bazterketa Larriaren Prebentzio eta
Eskuartzerako Euskal Estrategia.**

EMILIO SOLA. Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaria.
Eusko Jaurlaritza

**Kataluniako bizitegi-bazterketaren ekimenerako
Estrategia Integrala.**

EVA FERRAN ROIG. Analisi eta Programaziorako Azpizuzendari
Nagusia. Lana, Gizarte Gaiak eta Familien Saila.
Kataluniako Generalitatea

**Etxebizitza publikoa bizitegi bazterketa larriaren dauden
pertsonekiko arretan.**

FERMÍN BRAVO LASTRA. Etxebizitza saileko zuzendari nagusia.
Gizarte zerbitzu eta eskubide sozialen Kontseilaritza. Asturiasko
Printzerria

Flandeseko etxegabeen arretarako Estrategia

MARC VERHELST. Ongizate Soziala, Familia eta Lanaren Saila.
Flandesko Gobernua, Belgika

Galeseko etxegabeen arretarako Plana.

GEOFF MARLOW. Etxegabeko Pertsona eta Etxebizitzako
Sostenguen Saila. Galeseko Gobernua, Erresuma Batua

15:30-18:00 Bizitegi-bazterketaren arloan zuzeneko eskuartzeetarako tresnen inguruko lantegiak

Burutuko dira aldi bereko sei lantegi, eta bertako partaide izateko aukera izango dute 40 lagunek, etxegabeko biztanleen arloko eskuartzeen inguruan oso harreman estua duten bost gaien inguruan. Lantegiko plazen kopurua mugatua denez, izena ematen den neurrian eskainiko dira bertako plaza horiek.

1. Lantegia

**Bizitegi-bazterketa larriaren bizi diren emakumeei
bideratutako eskuartzeak.**

ROCÍO VITERO. Arabako HIESaren aurkako Batzordea

2. Lantegia

**Etxegabeko pertsonen bideratutako arreta
eta buru-osasuna.**

ERNESTO NOTARIO. Bilboko Udaletxea

RUBÉN DE PEDRO. Osakidetza

3. Lantegia

Etxegabeko pertsonentzako lanaren kudeaketa emozionala.

ENRIQUE SARACHO. EDIREN

4. Lantegia

**Exijentzia, kalteen gutxitzea eta bizitegi-bazterketa
larriaren arloko autodeterminazioa: ibilbide luzeko
etxegabeen kronikotasunari aurre egiten.**

OMAR GARCÍA. Gaueko Aterpea, RAIS Fundazioa

5. Lantegia

**Etxegabeko biztanleei bideratutako eskuartze sozialaren
inguruko gai etikoak**

BONI CANTERO. Gasteizko Udaletxea


PABLO RUIZ. Bizitegi

6. Lantegia

**Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen
lagun-egite soziala**

RUBÉN UNANUA. Etxerik gabeko pertsonentzako
zerbitzuaren zuzendaria, Iruña

MYRIAM GÓMEZ GARCIA. Gizakia Herritar / Paris 365 Fundazioa



Euskadiko bizitegi-bazterketari buruzko III. Jardunaldiak

<http://mintegia.sis.net>

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS



ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO ZUZALDIA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

B
Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO